

ENOUGH

Genozidioari eta gizateriaren kontrako hilketei amaiera ipintzeko proiektua

Kongoko gatazka-mineraleei buruzko erabateko ikuspegia

2009ko apirilan Enough proiektuko taldeak eta Grassroots Reconciliation Group-ak idatzitako proiektua

Sarrera

Enough Proiektuak alarma boza eman du. Kongoko Errepublika Demokratikoa, Bigarren Mundu Gerraz geroztik dagoen gatazka-leku odoltsuena da, hala nola munduko lekurik arriskutsuena emakume edo neska batentzako,; eta hau, neurri batean horrela da, ekialdeko Kongon dauden mineralak behar dituzten produktu elektronikoaren nazioarteko eskaera betetzeko. Ekialdeko Kongon lurraldeengatik, eskubideengatik, identitateengatik, herrialdebotereen inguruko borrokengatik eta Kongok herrialde gisa duen ahultasunagatik dauden tentsioek, krisi komplexu bat sortarazi dute; eta ekialdeko Kongok krisi hau duen bitartean, gatazka-mineralen salerosketak gatazkaren gako nagusietariko bat izaten jarrituko du. Ekialdeko Kongoko gatazka-mineralen salerosketatik izugarritzko irabaziak lortzen dituzte talde armatuak, eta talde hauek aldizka ankerkeria beldurgarrienak egiten dituzte, eskualdeko mehategi baliotsuen eta garraio bide onenak kontrolatzeko, hala nola salerosketa honetan sartuta daudenei gehiegizko zergak ipintzeko.

Ekialdeko Kongotik datozen gatazka-mineralak eduki ditzaketen produktu elektronikoak ekoizten dituzten enpresek erantzukizuna dute beraien salerosketek ankerkeriak (nahigabe direnak ere) sustatzen ez dituztela ziurtatzeko,. Hau ez da lan erreza, baina egin daiteke. Produktu elektronikoak ekoizten dituzten enpresek beraien hornitzaileengan eragin dezakete eta erabiltzen dituzten mineralen aztarna jarraitu dezakete talde armatuak eta interes kriminalak finantziazten dituzten mehategietatik ez datozela ziurtatzeko. Munduko kontsumitzaileek eta hiritarrek zeregin erabakigarria eduki behar dute eta horretarako enpreseei eta gobernuei eskatu behar diete hornitze kateei presioa egin diezaieten; gatazka-mineralak salerosketa harremanetatik kanpo gera daitezen.

Produktu elektronikoetako kontsumitzaileen hornitze kateetara gardetasuna eramatea lehenengo urrats garrantzitsua izango litzateke Kongoko mineral iturri ugariak transformatzeko eta, horrela, iturri hauek indarkeria pizteetik boterearen eragilea izatera pasatuko dira gatazkan harrapatuak dauden milioi pertsoentzako eta Ekialdeko

Kongoko mehategietan irabazten duten bizibide eskasaren beharrea daudenentzako. Estatu Batuek eta beste legegile eta aktibistek dinamika hauek behin-betiko aldatu ditzakete gatazka-mineralen salerosketaren nazioarteko garrantzian arreta jarritz eta adiskidetzeko ahaleginak gatazkaren ekonomia politikoa heltzen dutela ziurtaraziz, ekonomia hau denbora askotik alde batera utzi baita.

Ekialdeko Kongoko gatazka-mineralen madarikazioari benetan irabazteko, ikuspegi zehatzago bat behar da. Hainbat urteen zehar segurtasun, gobernantza eta Kongoko bizibideei buruzko inbertsio garrantzitsu eta luze batez eta epe luzeraz arduratzen den ikuspegi bat behar dugu.

Gatazka-mineralen salerosketarekin amaitzen duen estrategia zehatz batek lau puntu nagusi izan behar ditu:

1. Hornitze kateei arreta ipini
2. Meategi estrategikoak non dauden jakin eta ziurtaratu
3. Gobernantza aldatu
4. Meatzarien bizibideak eta aukera ekonominikoak babestu

Azkenik, gatazka-mineralen arazoaz arduratzen den edozein ahaleginak estrategia zabalago batekin elkartuta egon behar du Kongon eta beraien inguruko herrialdeen artean asmo politikoa sortzeko. Modu honetan, azken 15 urteetan ugaritu diren tokiko, nazioko eta eskualdeko tentsioekin amaitzeko konponbide diplomatikoak aurkituko dira. Gardetasuna eta erantzukizuna mugeetatik kanpo hedatu behar dira eskualdeko beste gobernu batzuk kontutan hartzeko. Ruandak, Ugandak eta Burundik (neurri gutxi batean) legez kontrako mineralen salerosketari eta batzuetan modu zuzenean lagundu duten ezegonkortasunari etekina atera diote. Arrazoi beragatik, Kongoko inguruko herrialdeek segurtasunari buruzko legezko ardurak eta interes ekonomikoak dituzte Ekialdeko Kongoan. Ezinbestekoa da Estatu Batuek eta bere aliatuek eskualdeko jokalaria hauei buruzko ikuspegi inpartzialago bat egitea, segurtasuneko arduraz arduratzeko, estatu hauek gatazka-mineralen salerosketa suntsitzailean duten eginkizun garrantzitsuarekin amaitzeko eta Kongon eta bere mugetatik kanpo Eskubide Estatuari laguntzeko.

Kongoko hornitze kateak: Kongoko meategietatik munduko merkatuetara

Ekialdeko Kongoan, indarkeria gehiena mineral ugari dituzten Ekialdeko Eskualdeko, Ipar Kivu-ko eta Hego Kivu ekialdeko eskualdeetako zonaldeetan burutu egin da. Hau ez da kasualitatea. Kongoko estatuaren kontroletik kanpo geratzen diren urrutiko zonaldeetan, indarkeria erabiltzen duten talde armatuek mineralen salerosketa gehiena kontrolatzen dute. Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak (FDLR, 1994an genozidioa egindako hainbatengatik zuzendutako milizia ruandarra), autonomoak diren edo Kongoko armadari arnegari dauden unitateak, Mai-Mai taldeak eta beste talde paramilitarrak meategi-ustiategi asko kontrolatzen dituzte, Herriaren Defentsarako Batzar Nazional errebolteraria (CDNP, Laurent Nkunda buru bezala zuen eta Ruandak laguntzen duen talde errebolteraria) muga-postuetan eta mineralen zergetan duten kontrolaz aprobetxatu den bitartean.

Zeintzuk dira salerosketan parte hartzen duten mineralak? Hiru

T¹-ak eta urrea

Talde-armatuek hiru T-ak (eztainu, tantalio eta wolframio metalek sortzen dituzten meak) eta urrea salerosten dituzte. Kongotik datozen mineralen munduko ekoizpenaren ehunekoia sustantziaren araberakoa da. Kongok munduko eztaingaren %6 eta %8 ekoizten ditu, beraz, munduko seigarren ekoizlea daⁱ. Gainera, Kongok tantalioko munduko ekoizpenaren %15-20 du; produkzio hau handiagoa bilakatu da australiar tantalio-meategien ixtea dela eta, munduko ekoizle handienak baitziren. Bere ixtearen berri ematen zuen deklarazio batean, Talison australiar meatze-konpainiak bere erabakia Erdialdeko Afrikako ekoizpen merkearekin lehiatzeko ezintasunari leporatu zion, batez ere Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekoizpenari, non gatazka-mineralen salerosketa hadiagotu denⁱⁱⁱ. Wolframioari dagokionez, Kongok oso papel txikia du, munduko ekoizpenaren %2-4. Hala ere, mineral honek gero eta diru-sarrera gehiago ematen dizkio talde armatuei. Modu berean, urre ekoizpena Kongon munduko ekoizpenaren %1 baino gutxiagoa da, baina diru-sarrera erbakigarria da, batez ere Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoentzako. Gehiago jakiteko, ikusi lehenengo eranskina.

Talde armatuek mineralen salerosketatik lortzen dituzten irabaziak estimatzea erronka bat da, kontrabandoz eta froga dokumental guztiak estaltzeko legez kanponko salerosketatik etekinak atertzen dituzten nahitako ahaleginaz beteta dagoen negozio bati buruzko datu fidagarriak lortzeko sailtasuna dela eta. Dena den, datu fidagarrietan oinarritzen bagara, Kongoko talde armatuek 2008an 185 milio dolar inguru irabazi zituzten mineralen salerosketarekin. Modu askotan, hau ondo oinarrituta dagoen suposizio bat da, eta zifra honek eta gure kalkuluek gardentasun handiago batera eramaten duen ikerketa zabalago eta sakonago batera hasiera eman diezaioten espero dugu. Estimazio honetara iristeko erabili diren kalkuluen banakapen zehatzago bat edukitzeko, ikusi bigarren eranskina.

Meatze-ustategiaren lekuak Ekialdeko Kongoko zinta handi batetik zabaltzen dira eta eskala handiko lan-sorta handia bere baitan hartzen ditu; lan sorta hau zabaltzen da, adibidez, Walikaleko lurraldean dagoen eta 2000 meatzariak lan egiten duten Bisie meatzetik langile gutxi batzuk lan egiten duten lurzoruko zulo sakabanatuetara. Gatazka zonaldeetan dauden meatze-ustiapen guztia artisaua da: eskulanak, lanabes sinpleak eta oinarritzko teknologiak. Hau Kongoko meatze-ustiapen gehienekausa da. Katangako probintzian ere, non meatze sektorea nagusi diren kobrea eta kobalto meatzeak dauden, egungo ekoizpenaren zati handi bat artisau-lanean oinarritzen da eta eskala handiko industria-lanak esplorazio fasean geratzen dira. Zoritxarrez, gaur egungo kongoar lege-esparrupean, artisau-lanean oinarritzen diren meatze-ustiapen gehiena teknikoki legez kanpokoa da, meatze-ustiapen zonalde bakar bat ere artisau-lanean oinarritzen diren meatze-ustiapen zonalde bezala ofizialki izendatu ez direlako. Legezko meatze-ustiapen bat egiteko behar diren ahaleginentzako lege-esparru bideragarri bat ez edukitzeak sektore hau menderatzen duten, baina ez erabat kontrolatzen duten, talde armatu bortitzekin hitz egiteko ahaleginak zailtzen ditu.

Kongoko beste ondasun minerala

Urreak, tantalioak, wolframioak eta eztaingak Kongoko ondasun mineral ugariaren zati nagusi baten adibidea da bakarrik; izan ere, Munduko Bankuaren arabera, 2,3 milio akreen zehar zabaltzen diren 1.100 mineral sustantzia baino gehiagokoa da ondasun hau. Baliagai natural ugari dituzten beste zonalde batzuk hauek dira: Katanga, kobrea eta kobalto meatze ugariak dituen, eta Kasal probintzia, diamante ugari dituen. Zonalde hauek ez dira gatazka armatuaren biktimak eta, beraz, bere produktuak ez dira gatazka-mineralizat hartzen.

¹Ingelesez, tantalioa, wolframioa eta eztaingua tantalum, tungsten eta tin esaten da, hurrenez hurren (Itzultzailearen oharra).

Kongoko baliagai natural guztien erabilerarekin lotuta eta Kongoko jendearen onurako pentsatuta dauden erronkak ugariak eta ezinbestekoak dira herrialderan epe luzeko garapenarako. Meatze sektorea ere eztabaidagarria da, batez ere mendebaldeko eta Txinako inbertsioen rol nabarmena kontuan hartzen badugu. Kongoko gobernuak meatze-ustiapenen kontratu guztien analisi eta bernegoziazio sakonak burutu ditu 2007 urtetik aurrera. 2009ko apirilaren amaizeko ideia zegoen, baina epea 6 hilabete gehiago luzatu zen.

Tantalioa, wolframioa eta eztainua: mineralak ala metalak?

Hornitze katean findu baino lehen, Ekialdeko Kongotik erauzten diren mineralak mea forma dute. Forma hau dutenean, beste izen bat eman ohi diote.

Ekialdeko Kongoan:

- **Eztainu mea:** kasiterita
- **Tantalio mea:** "koltan" edo kolumbita tantalita
- **Wolframio mea:** wolframita

Behin prozesatuta edota galdatuta, mineralaren mea metal bilakatzen da.

Talde armatuek mineralek salerosketatik bi eratan lortzen dituzte etekinak:

- **Meatzeak kontrolatuz**, meatzariak baldintza txarretan eta arriskutsuetan lan egitera behartuz eta honen truke huskeria bat jasotzen dute (dolar bat eta bost dolaren arteko kantitatea egunean^{iv}). Talde armatuen hedadura meatze-ustiategi zonaldeetan eta erabiltzen duten behartze maila zonalderaen eta talde armatuaren araberakoa da.
- **Garraiolariari, lekuko eta munduko erosleei eta aduanako kotroletan erroseriak eta zergak eskatuz.** Hau eragozpenekin hasten da meatze-ustiategi zonaldeen kanpoaldeetan, baina honen barne ere sartzen dira Ekialdeko Kongoan dauden estatu-erakundeak eta lekuko agintariak bortxatzea.

Nazio Batuen Erakundea eta Gobernuak Kanpoko Erakundeek talde armatuen eta mineralen salerosketaren harremana dokumentatu dute era sakonean. NBEko Aritu-Taldearen azken txostenak (2008ko abenduan) Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoek Hego Kivu-ko meatze gehienak kontrolatzen dituztela aipatu zuen. Aitzineko Herriaren Defentsarako Batzar Nazionala eta orain gobernuarekin aliatuta 2009ko martxoaren 23an egindako bake-akordio batez geroztik, ez zuen inoiz meatze asko modu zuzenean kontrolatu, baina salerosketaren zati handiena kontrolpean edukitzeko gai izan zen funtsezko muga-postuen bitartez^v. *Africa Confidential* aldizkariak jakinarazi zuen 2008ko martxoan soldadu eta milizia kongoarrek zituzten bi tona mineral konfiskatutak izan zirela Gomako aireportuan^{vi}. Polé Institutoak dokumentatu du era zehatzean Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak eztainu, tantalio eta urre meategiekin zerikusia dutela^{vii}. *Global Witness* GKE-k informatu zuen Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak eta kongoar armadak elkar lan egiten ari zirela mineralen salerosketan 2008ko irailean^{viii}. Are gehiago, Walikale eskualdean (Ipar Kivu-n, zeinek Gomatik esportatzen den kasiterita mearen %70 duena) dagoen Bisie meategiarekin erlazionatuta dagoen ikerketa berri batek iradokitzen du salerosketa kontrolatzen duten elite militar, komertzial eta politikoak kasiteritaren meatze-ustiapenarekin lortzen diren irabazien 70% irabazten dutela; beraz, meatzariak edota garraiolariak irabazi eskasak lortzen dituzte^{ix}.

Gatazka-mineralen hornitze katea

1. Ekialdeko Kongo: talde-armatuek meategiak eta zirkulazio-bideak kontrolatzen, armak erosten eta indarkeria erabiltzen dituzte.
2. Ruanda, Uganda eta Kenia: mineralak errefinategietara eta galdategietara eramaten dira. Jokalari nagusiak metal-merkatari europarrak dira.
3. Ekialdeko Asia: mineral-galdategiek edota prozesatu kimikorako galdategiek mineralak metalak bihurtzen dituzte. Zirkuitu-txartelak egiten dituzten enpresek metalak txartel hauetan ipintzen dituzte.
4. Estatu Batuak: prozesatutako mineralak telefono mugikorretan, musika-erreproduzitzailetan eta digital kameretan saltzen dira.
5. Europa: prozesatutako mineralak telefono mugikorretan, musika-erreproduzitzailetan eta digital kameretan saltzen dira.

Ekialdeko Kongotik, mineralak inguruko herrialdeen zehar garraiatzen dira, Ruanda, Uganda eta Burundi barne. Ekialdeko Kongoan zergak altuagoak direnez bere inguruko herrialdeekin konparatzen baldin baditugu, mineralak esportatzen dituzten salerosketa-etxeek motibazio handia dute prozesatzen duten mineralen kantitate zehatza ez esateko edota, batzuetan, kontrabandoz ateratzen dituzte muga-postueen zehar, gutxi kontrolatuta baitaute eta bertan korrupzioa da nagusi^x. Munduko Garapenerako Britainiar Sailak estimatzen du Kongoko gobernuak emandako zifra ofizialek ezta inu-mearen gaur egungo salerosketen 30% baino gutxiagoa adierazten dutela^{xi}. Askotan, munduko merkatariek informazio okerra ematen dute baliagaiei buruz eta esaten dute baliagaiak Ruandatik, Ugandatik eta eskualdeko beste herrialdeetik datoztela Kongoko “gatazka-mineralen” etiketa saihesteko. Modu adierazgarrian, Ruandak esan zuen 2.679 tona ezta inu esportatu zituela 2008 urteko lehehengo erdian, baina bere meategi nagusiak Gatumban bakarrik bost tona ekoizten ditu hilabetero^{xii}.

Eskualdetik mineralak itsasontziz garraiatzen dira Mombasako, Keniako eta Dar es Saalmako (Tanzanian) portuetatik Asiara nagusiki, non galdategi eta prozesatze enpresa multinazionalak Malasian, Tailandia eta Txinan eta beste toki batzuetan minerak metalak bihurtzen dituzten^{xiii}. Estatu Batuetan eta Alemanian egoitza duten eta tantalioa prozesatzen duten enpresek, metal-salerosketa egiten duten enpresa belgikarrak bezala, Ekialdeko Kongoan dauden talde armatuengandik, Herriaren Defentsarako Batzar Nazionalagandik eta kongoar armadagandik mineralak erosi ahal dituzte^{xiv}. Kondentsadoreak edota zirkuitu-txartelak bezalako osagarri elektronikoak egiten dituzten enpresek erosten dituzte metal hauek. Banan-banan, osagarri hauek tresna elektronikoko fabrikatzaileek jasotzen dituzte, tresna elektroniko hauen artean gehien erositako produktuak aurkitzen direlarik, hots, telefono mugikorrek, musika-erreproduzitzailak mugikorrek, bideojokoak eta digital kamerak^{xv}.

Zergatik ez dira aski gaur egungo ahaleginak?

Ekialdeko Kongoan dagoen gatazka ekintzeko egin diren ekintzak atzerakoiak izan dira neurri handian eta ez dira egokiak arazoaren eskalarako. Munduko komunitateak hauteskondeetan eta bakea mantentzen milaka milioi gastatu ditu, baina bakea mantentzeko ahaleginak huts egin dute gatazkaren gako ekonomikoak ekizterako orduan, nahiz eta NBE-k Kongoko ekonomia-gerrari buruz bi ikerketa egin dituen dokumentazio zehatzarekin. Ez zegoen Kongoko gatazka-mineralen salerosketa sustatzen dituzten egiturak aldatzeko ikuspegi koherente bat ezta bere eragin suntzitzaile aldatzeko, honek Kongoko erakundeak ahul eta eskasak mantentzen laguntzen baitu. Orain arte, ahaleginek banako arau-hauste zigortzean edota erakundeen gaitasuna pixkanaka handitzean jarri dute arreta bakarrik. Ekimen hauetako batzuk legezko eta ekonomikoak diren aukeren garapena laguntzeko aukera dute

Ekialdeko Kongoan, baina orain arte estatus quoa aldatzeko behar diren koherentzia eta kemen diplomatikoa falta dute. Ondorioz, Kongoko herriak harrapatuta jarraitzen du, bere bizibidea Kongoko herria explotatzen duen mineral-salerosketen mendean dagoelako. Talde-armatu bortitzak ondo finantzatuta egoten jarraitzen dute, kolektiboki Kongoko herriarena den baliagai-estatu lapurtzen baitute. Bitartean, mendebaldeko kontsumitzaileek produktu elektronikoa erosten jarraitzen dute eta ez dakite beraien tresnek estipenaren gupil zoroa sustatzen dutela.

Kongoko gobernuak: bere lidergoaren eta ahalmenaren urritasuna

Kongoko gobernuak ez du Kivu-ko eta inguruko eskualdeen mineral-zonalde aberatseen kontrol garrantzitsua. Alde handia dago Kongon meatze-ustiapena eta salerosketa teorien gobernatzen duen lege-esparruaren eta errealitatean egiten diren praktiken artean. Nahiz eta Kongoko meatze-araudia 2002an berrikusi zen nazioarteko estandarrak bete zitzaizkion, ez da kontuan hartzen ekialdeko Kongoan edo, are gehiago, meatze-ustiapenean aditua den Nicholas Garrett-ek argumentatu zuen bezala, “ boterea dutenek meatze-araudia erabiltzen dute manipulazio, eraso eta estortsioaren bidez artisau-meatzariak esplotatzeko^{xvi}”. Gobernuko agentzia eta erakunde erregulatzailez egindako talde konplexu bat meatze-ustiapenaren zergen ordainketa eta ikuskapenaren eta mineral aberastasunaren salerosketaren arduradunak dira. Polé Institutoak dokumentatu du 25 gobernuko agentzia kongoar desberdinek rol garrantzitsu bat jokatzeko dutela mineralen salerosketa Goman arautzerakoan^{xvii}. Erakunde hauek meatze-ustiategi zonaldeetan dauden, muga-bazterretan dauden edo meategiekin salerosketan aritzen diren bitartean, gobernuaren diru-kutxetara inoiz iristen ez diren “zerga” kolektibo baliabide gisa funtzionatzen dute legezko erakunde publikoak^{xviii}.

Nahiz eta Kongoko agintariek baliagaiak eta esperientzia behar dituzte ziurtatzeko herriaren mineral-aberastasunari estatuak eta biztanleek etekina ateratzen diotela eta ez talde armatuek eta kriminal- sareek, horretarako behar den gaitasuna historiaren zatia da bakarrik. NBE-ko Adituen Batzordeak 2000 urtean ondorengo ondoriara iritsi zen: “legez kanpoko ustiapena Kongoko Errepublika Demokratikoan modu eraginkorran gelditzeko behar den elementurik garrantzitsuena lotuta dago sareak laguntzen, babesten eta hauetatik etekinak ateratzen dituzten asmo politikoarekin”^{xix}. Gobernuak, enpresaburuak eta gizarte zibila elkarlanean aritu behar dira Kongoko mineral-aberastasuna legeztatze behar den asmo politikoa eraikitzeko.

Beraien artean loturarik ez duten nazioarteko ahaleginak

Kongoko mineral-gatazkari heltzeko hainbat nazioarteko ahaleginak burutu egin dira. Ahalegin hauek 2001an hasi ziren NBE-ko Segurtasun Kontseiluak Baliagai Naturalen eta Beste Aberastasun Naturalen Legez Kanpoko Ustiapenaren Aditu-Taldea baimendu zuenengan (orokorrean talde hau “Aditu-Talde” bezala ezagutzen da). Talde honek Kongoko gerraren zati guztietan funtzionatzen zuen gerra-ekonomiaren zenbaterainokoa erakusten zuen txosten-sail bat idatzi zuen. 2004an, Kongori zuzendutako erregimen -zigorrek eta arma-blokeo baten inposizioaren ondoren, Segurtasun Kontseiluak bigarren Aditu-Talde bat sortu zuen, eta bigarren talde honek erregimenaren zigorklausulak behatzea zuen helburu. Gatazka xehetasunez ikertzen zuten eta NBE-ren bi erakunde adituek idatzi zituzten txosten-sailek erakusten dituzte segurtasun ezaren etengabeko oinarri ekonomikoak Ekialdeko Kongon, denboraldi honetan herrialdeak garapen politikoa izan duen arren. Bi talde hauek gomendatutako neurri zehatzak aldatu dira, gatazka-mineralen blokeotik neurri xumeetaraino, adibidez, gatazka-mineralen hornitze kateentzako bilatze sistema edota eskualdeko mineralak erosten dituzten enpresei eskatzen zaizkien betekizunak.

Ekialdeko Kongoko zonaldeetik datozten mineralei zigorra ipintzeari buruzko posibilitateak eztabaida sortzen du. 2006an, NBEko Aditu-Taldea gomendatu zuen Segurtasun Kontseiluak “Kongoko Errepublika Demokratikoko baliagai naturalekin egiten diren legez kanpoko esplorazio, ustiapen eta salerosketa guztiak egintza zigorgarri bezala adierazi behar lukeela^{xx}”. NBE-ren ondorengo txosten batek zigor hauetatik ondorioztatzen diren bigarren mailako ondorio potentzial eta humanitarioak aztertu zituen eta erreparatu zuen zigor hauek ondorio negatiboak izan

ditzaketeela bi milio artisau-meatzarien bizibidean eta bere familietan, meatzari hauek guztiek Kongoko lege-eremu formalek kanpo lan egiten dutelako gaur egungo baldintzak kontuan hartuz^{xxi}.

Alemaniko gobernua eta G-8ak epe luzera adorea eman dezakeen ekimen bat babestu dute: Salerosketa-kate zertifikatuen garapena (CTC ingelesez: Certified Trading Chains), munduko bezeroekin lotuta dauden legezko meatze-ustategi zonaldeekin. Ekimen hau ahalegin zientifikoekin lotuta dago mineral espeziokoaren jatorri geologikoa identifikatzeko eta bere miaketa burutu ahal izateko^{xxii}. Alemaniko gobernua bai Kongo bai Ruandarekin aldebiko laguntza-programak ditu tantaliorako horrelako sistema bat garatzeko laguntzeko, beste mineralak barne hartzeko aukerarekin. Beste enpresa pribatuek ere adierazi dute eztaingaren eta beste mineralen arrastoa jarraitzeko teknologiak daudela isotopoekin egindako frogen bidez. Hala ere, ekimen hau martxan jartzea erronka erraldoiak ekarriko lituzke logistikari, oposizio politikoari eta gastuei dagokionez. Nazio Batuek eta proiektuan parte hartzen duten beste gobernu batzuek, esate baterako Estatu Batuak, eszeptikoak azaldu dira Salerosketa-kate zertifikatuen erabilerekin, eta seguruenik behar den baino denbora luzeagoan lor daitekeen gauza bat da hau.

Lehenago aipatutako ahaleginekin batera, gatazka eta baliagai naturalen salerosketaren arteko lotura apurtzeko, Kogoko erakundearen gaitasuna eraikitzeko nazioarteko laguntza asko bidali da. Munduko Bankuak Meatze-Sektorean Hazkundera Gobernantzarekin egon dadin helburarekin plan zehatz bat garatu du, eta zergadun agentziak, Estatu Batuetako Nazioarteko Garapenerako Agentzia barne (USAID ingelesez) eta Nazioarteko Garapenerako Sailak elkarrekin garatu dute Bakeagatik Salerosketa izeneko ekimen bat; ekimen honen helburua baliagai naturalen salerosketa erabiltzea da eskualdean bakea eraikitzeko. Bakeagatik Negoziatuz orain dela gutxi argitaratu du eskualdeko salerosketa legeztatzerako laguntzen duten beharrezko elementu asko barne hartzen dituen erreformentzako gai-zerrenda bat, baina garapenerako egiten diren ahalegin hauek bideragarria den estrategia politiko batekin lotuta egon behar dute masa kritiko bat lortu nahi baldin badute. Estatu Batuetako Nazioarteko Garapenerako Agentziak PACT (“ituna” ingelesez) Gobernu Kanpoko Erakundera sortu du ere; erakunde honek munduko meatze-enpresekin batera lan bat burutu du meatzarien eta bere manukoen baldintzak Katanga eta Ituri eskualdeetan hobetzeko, baina ekimen hauek ez dira oraindik Kivu-ko eskualdeetara zuzendu.

Egiaztapen eta garapenerako programek konponbide teknikoentzako edota garapenerako posibilitateari atea irekitzen diote, baina martxan jarri behar dira arazoaren oinarria politikoa dela kontuan hartuz. Egiaztapena epe luzeko konponbide bakarra da gatazka-mineralen eta mineral “garbien” artean bereizketa egiteko, baina adostasun politiko bat behar du modu eraginkor batean funtzionatu dezan, eta egiaztapen programa eskas batek emaitza okerragoak izango lituzke. Era berean, garapenerako egiten diren ahaleginak estrategia politiko batekin lotuta badaude haserrearazten duten jokalariek bakantzeko eta eskubideaz neurri gabe baliatzen direnekin egiten diren salerosketak jokaera onartezina bezala adierazteko, arriskua dago estatus quo legeztatzeko eta laguntzen saiatzen diren zibilei kalte egiten diete. Ahalegin hauek estrategia politiko bat osatu dezakete eta osatu behar dute, baina ezin dute ordezkatu.

Eskualdeko dimentsioa

Eskualdeko politikak Kongoko gatazka-mineralen arazoa konplexuagoa egiten dute, baina arazo honetarako epe luzeko konponbide bat lortzeko itxaropen hobetoak eskaintzen dituzte ere. Ekialdeko Kongoko mineral aberastasuna munduko merkatuetara iristen da inguruko herrialdeen onod dokumentatutako salerosketa-bideen zehar, batez ere, Ruanda eta Ugandatik zehar. 1998tik 2003ra bi herrialdeek Kongoko zerrenda zabalak okupatu eta lapurtu zituzten era sistematikoan. Lege-kasuek Nazioarteko Justizia Auzitegian ondorengo epaia eman zuten: Kongoko gobernua milaka milioi dolar jaso beharko lituzke kalte-ordainketa bezala, denboraldi honetan egindako legez kanpoko ekintzak direla eta^{xxiii}. Ruandako eta Ugandako armadaka orain dela gutxi egindako operazioak susmoak piztu ditu; izan ere, Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak eta Jaunaren Erresistentzia Armadaren kontrako ekintzek Kongoko mineral-aberastasuna etengabe kontrolatzeko aukera eman diote atzerriko armadei.

Hala ere, eskualdeko estatuak geroko ikuspuntu kooperatiboago baten alde daude; honek azaltzen du neurri batean zergatik 2006ko abenduan 11 eskualdeko estatu-nagusiek hitz eman zuten Baliagaia Naturalen Legez Kanpoko

Ustiapenaren kontrako Potrokoloa erabiliko zutela; protokolo hau Afrikako Aintzira Handien Eskualdean egindako Nazioarteko Hitzaldiaren atala zen^{xxiv}. Nazioarteko kooperazioa arazo honen inguruan oso poliki mugitu bada ere, berritzaile eta lekukoa izan daitezkeen mekanismo bat eskaintzen du mugaz bestaldeko lankidetzaren salerosketa-mekanismoen garapenean ezartzeko; salerosketa-mekanismoen garapen honek nazioarteko inbertsio gehiago erazten duen klima bat sortzera lagundu beharko luke. Alemaniako gobernuak mineral egiaztapena duten kontseilari teknikoak kokatu ditu Bujumbura (Burunin) egindako hitzaldiaren idazkaritzan; ekintza hau eskualdeko ikuspuntua sustatzeko lehenengo pausu bat da.

Estrategia zehatzago batera abiatuz

Ez dago konpondibe magikorik Kongoko gatazka-mineralen arazoarekin amaitzeko. Baina Kongoko gobernuak eta eskualdeko gobernuak, nazioarteko komunitatea eta sektore pribatuak beraien ahaleginak legezko eta indartutako mineralen salerosketa batean oinarritutako helburu batean elkartzen badituzte, gatazka konpontzeko efektu handiago bat egongo liteke. Nahiz eta Estatu Batuek buruzagi gisa eginkizun garrantzitsu bat jokatu dute negoziazio politikoak errezagoa eginez Ekialdeko Kongoko gatazka kronikoari amaiera ipintzeko heinean, gatazka sustatzen duten ekonomiei ekitearen erantzunkizunari uko egin dio. Estrategia berri batek gatazkaren ekonomia politikoari aurre egin behar dio.

Kongoko erakundearen erreforma epe luzeko helburu bat da, baina betekizun nagusiak finkatu daitezke eta lehenengo pausuak eman daitezke ondorengo 12 hilabeteetan. Kongoan inbertsio gehiago ez egitea sahiesteko eta sektore pribatuaren indarra mantentzeko neurriak burutu egin behar dira, horrela Ekialdeko Kongoko susperraldia lagundu dezakegu. Munduko atzerapen ekonomikoaren ondorioak Kongorentzat mehatxu bat izan arren, berrikuntza bati hasiera emateko aukera dira ere. Produktuen boom-ak sortarazi dituen presio politikoaren aurrean, gobernuaren aurreko ahaleginak, meatze-ustiapenaren eta Lutundula Batzordearen kontratuak berrikustea barne, porrot egin dute erreforma garrantzitsuak lortzerako orduan^{xxv}. Gaur egun, Kongoko gobernuak kanpo-kapitala behar duen bitartean, hobetutako gobernantza eta politika ekonomikoak martxan jartzeko aukera dago. Politika hauek herrialdearen mineral aberastasunetik lortutako irabaziak meatzarientzako eta beraien familientzako eta ez kriminal-enpresentzako direla ziurtatzera langunduko lukete.

Estrategia berri batetara daramaten elkarri lotuta dauden lau osagai daude; estrategia honen helburua gatazka-mineralen salerosketa murriztea eta Kongoko estatua eta bere biztanleak sendotzea da. Osagai hauek elkarrekin burutu behar dira talde-armatuei mineralak erosten dizkietenen gizabanako eta artekarien kontra gogortutako zigorzapen sendo batekin.

1. Hornitze-kateei arreta ipini

Gardetasuna lehenengo pausua da Kongoko gatazka-ekonomia aldatzeko. Azkeneko kontsumitzaileek produktu elektronikoaren metal osagaien hornitze kateak miazteko eta aztertzeko abilezia pausu erabakigarri bat da nazioarteko eskaria talde armatuetatik kanpo eramateko eta nazioarteko eskari honek legezko baliagaiak erabiltzeko aukera izateko.

Presioa egin azkeneko kontsumitzaileen bidez

Industria elektronikoa ekialdeko Kongoko meategietatik ateratzen diren lau mineral nagusien lehenengo azken kontsumitzailea da eta Estatu Batuek hornitze katean presio gehien egiten duen lotura^{xxvi}. Industria elektronikoak gehienezko irabaziak lortzeko egiten dituen presioek Kongoko gatazka-mineralen eskaria bultzatu du. Mineral hauek prezio baxuan ekoizten dira ateratzeko erabiltzen diren Erdi Aroko baldintzen eta Afrikatik kanpo ateratzen dituzten legez kanpoko sareen ondorioz^{xxvii}. Beste industria batzuek ere erabiltzen dituzte eztainua, tantalioa eta wolframioa: eztainua elikagai-kontserben eta animalia janarien latetan industrietan eta aerosol-latetan erabiltzen da^{xxviii}; wolframioa

eraikuntza-industrietan erabiltzen da (zulatzaientzako eta industrial muntaia-tresnetan) eta bonbilla industrietan^{xxix}; urrea bitxi-dendetan eta bankuetan erabiltzen da, azken hauek urrea inbertsio eta erreserba bezala erosten dutelarik.

Beste kanpainetako esperientziek erakusten dute kontsumitzaileekin salerosketa harreman duten enpreseei presioa egiten dienean, enpresa hauek hornitze-katearen postu azpitan kokatzen diren enpresa ertainen gainean funtsezko eragina dutela (hornitzaileak, urtzaileak, etab.). Adibidez, Wal-Mart gai izan zen Txinan dituen hornitzaileak bere paketatze ohiturak aldatzeko. Kanpainetako estrategiek azpimarratu dute kontsumitzaile-enpresatan eta marka nabarieratan arreta jartzen duten kanpainek publiko zabal batetara iristen direla eta, beraz, arrakasta izateko aukera handiagoa dutela. Industria elektronikoari buruzko kanpaina publiko eraginkor batek beste funtsezko industrietan ondorio biderkatzaile bat izan beharko lukete industria hauek bere kalkuluak alda ditzaten.

Gai honi buruzko nazioarteko abokatzia eta enpresa-lotura Europan hasi dira jadanik GBE koalizioaren, Make it Fair (Bidezkoa egin), lanari esker. Neurri handi batean abokaziaren ahaleginei esker, taldeko industria elektronikoaren gizarte-ardurarentzat egindako elkarte batek, Herritarren Industria Elektronikoaren Koalizioa (EICC ingelesez), metalen hornitze kateari buruzko ikerketa bat agindu zuen 2008an^{xxx}. Bere txostenaren ondoren, Herritarren Industria Elektronikoaren Koalizioa ados zegoen eztaingaren, tantalioaren eta kobaltoaren hornitze kateen gardetasun-eredu bat hastearrekin, eta deklarazio bat argitaratu zuen non aitortu zuen "hornitze kateen bidez eta industria zabalaren estandarrek eragin dezaketela^{xxxi}". Atomen hau garrantzitsua da, baina industriari egindako ahaleginak ez dira nahikoak desberdintasuna ezartzeko behar den gardetasunari dagokionez. Gaur egun, enpresek bakarrik Kongoko gatazka-mineralak salerosten duten hornitzaileen idatzitako eta zehaztugabeko bermeak hornitzen dituzten. Ez dago mekanismorik egiaztapen independente batekin edota fitxa teknikoaren ikuskapenekin hasteko. Abokatziarako egiten diren ahaleginak ziurtatu behar dute enpresek ez dituztela arazoak txosten eta aitopeneekin bakarrik biltzen. Enpresa elektronikoaren hornitzaileek aitortu dute Kongoko legetik kanpoko meategietako produktuak erosten ez dituztela eta hau hasiera bat da, baina ez dute frogatzen kontsumitzaileen produktu elektronikoek gatazka-mineralik ez dutelarik.

Ahalegin hauek handiagotuz, kontsumitzaile eta aktibistek bananduta eskatu behar dute hornitze-kateen ikerketa frogagarriak produktuak benetan gatazka gabeko produktuak direla ziurtatzeko. Honek ez du esan nahi Kongoko mineraleri boikota egin behar zaiola, mineralak erosteko baldintza zorrotz batzuk sortzea baizik; era honetan, kontsumitzaileek ziurtatu dezakete talde armatuek ez dituztela legez kanpoko salerosketatik edota eskualdeko biztanleen mendetasunatik irabaziak ateratzen. Industri-iturri askok elkarriketatuta baieztatu dute posible dela mineral hauen arrastoa jarraitzea. Adibidez, Wal-Mart-en "Love Earth" bitxi-lineak erakutsi du posible dela FedEx² bezalako sistema bat martxan jartzea urrearen ontziratzean; sistema honeak bilaketa zenbaki bat ipintzen du eta minerala jatorrizko meategitik merkataritza-guneraino jarraitzen du, prozesuko pasu bakoitza jarraituz. Horrelako sistema bat instalatzea erronka bat izango litzateke: koste handiak ekarriko litzuzke eta dokumentazioa faltsutzeko eragingarriak ahalegin honen zati gisa landu behar dira.

Sistema eraginkor bat sortzeko bi giltza daude: hornitze katearen funtsezko jokalariek elkarrekin lan egiteko konbentzitzea miatze-sistema bat sortzeko, eta sistemaren kontrol fidagarri bat martxan ipintzea hirugarren pertsona independenteak erabiliz. Miatze-sistema hau garatzeko, industria elektronikoaren hornitzaileekin elkar lanean aritu behar da, soldadura fabrikatzaileetik tantalio-prozesaketako enpresentara eztaingaldategiak barne, hornitzaile hauek guztiek erabili diren mineralen jatorriari buruz informazio gehiago baitute. Boluntateak hainbat sektoreetan egin behar den zeharkako ahalegin dakar berarekin. Hirugarren pertsona independenteek egin behar duten frogaketa erronka handiagoa da. Kimberley Process-en adibidea diamantekin laburra geratu da kasu honetan, industriaren autofrogatze batekin eta ikuskapen-baldintza independente eza, baldintza hauek diamante-salerosketen aitopenean dauden gabeziei kasurik ez egitera bultzatzen baitute. Adibidez, Amerikako Estatu Batuetako Estatu Sailak orain dela gutxi egindako txostena batek aditzera eman zuen Libanok bere landu gabeko diamanteen salneurri eta baliabideei buruzko informazio okerra ematen ari zuela, eta honen ondorioa Hezbollah-ren legez kanpoko finantzaketa izan daiteke^{xxxii}. Horren eraginkorra ez den ibilbidea hobetu behar dugu. Metal-salerosketak kontrolatzeko behar diren azterketak dituzten hirugarren pertsonen egiaztatzea behar dituzte meategi-ustiapeneen jatorriari buruzko aitopeneak eta hornitze-katean egiten diren ikerketak. Hirugarren pertsona hauek

² Estatu Batuetako logistika eta aire-konpainia.

azuztegiako auditoreak edota Amerikako Estatu Batuetako Estatu Sailak izan daitezke, azken honek hornitze-kateetan espezializatutak dauden taldeak baititu. Miazterako dagoen ekimen alemana oso erabilgarria izango litzateke modu egokian implementatzen bada.

Funtsezko artekariei egiten zaien presioa handiagotu

Hornitze-kateen bitartez enpreseen kalkulu eta enpresa-praktiken arriskuak aldatzeak ahala du gatazka bultzatzen duten interes ekonomikoak positiboki eragiteko; nahiz eta hau gerta litekeen, honek ere ezusteko ondorioak eduki ditzake. Nazioarteko enpresek Kongotik alde egiten badute eta mineral guztien merkatua amaitzen bada, honek egoera txarragoa bihur dezake. Lanarik ez duten meatzarietako talde armatuekin bat egiteko tentaldian erori daitezketek beraien bizibidea ziurtatzeko. Ondorio hauek arintzeak ez du bakarrik babes zabal bat eskatzen Kongoko metze-sektorea legeztatzeke, baizik eta Kongoko mineralen merkaturako interesa erakutsi duten eta hornitze katean daduden enprezentzako konpromisoa ere.

Mineralen hornitze kateen funtsezko zatietan lan egiten duten enpresek ahalegina egin behar dute bere estatus quoa mantentzeko jarrera arduradun baten onurak jasotzeko. Salerosle eta agente gisa lan egiten duten eta mineralak Kongotik munduko merkatuetara eramaten dituzten eskualdeko eta nazioarteko jokalariek kongotarrek lan egiten dute bai legezko bai legez kanpoko ekonomietan. NBE-ren Segurtasun Kontseiluaren 1857. erabakiak, Aritu-taldearen azkenengo txostenaren ondoren diktatu zena, jokalariek hauen gaineko nazioarteko presioa handiagotu du modu nabargarrian, zigor-irizpideak gehituz; horrela sartzen dira ere "legez kanpoko taldeak laguntzen dituzten gizabanako edota erakundeak... baliagai naturalen legez kanpoko salerosketaren bitartez". Erabakiak ere bultzatzen du gobernuak Segurtasun Kontseiluari zigortuta izan beharko litzaketen pertsonen buruzko informazioa bidaltzea, eta neurriak hartzea mineralen hornitze-katean parte hartzen duten enpresek legezko modu batean lan egiten dutela mineralak erosteko orduan ziurtatzeko. Segurtasun Kontseiluak eta lekuko gobernuak enpresa hauei jakinarazi behar diete aukera bat dutela: konponbidearen zatia izan, talde-armatuekin duten era guztietako harremanen amaiera ipiniz eta erreformarako esfortzuak lagunduz, edota zigorra jaso. Sustapenen nahasketa zuzena emanez jokalariek hauen salerosketa legez kanpoko modu batean zuzendu ez dezaten, funtsezko atal bat izango da legezko aukera ekonomikoak sortzeko Ekialdeko Kongoko sektore ekonomiko formalan.

Ondorengo neurriek eragin iraunkor bat izango lukete gardetasunaren handiagotzean:

- **Industriek beraien hornitze kateak miatu eta ikertu beharko lituzkete:** enpresek, bereziki industria elektronikoenak, tantalioa, wolframioa eta eztainua bere produktuetan miatu behar dute jatorrizko meategira iritsi arte. Ulegarria da posible dela azken-konsumitzaileen enpresek informaziorik ez izatea momentu honetan, baina beraien hornitzaile eta galdetegi-enprekin elkar lanean estu-estu aritu behar dira informazio hau lortzeko, horrela egiten ez badute, gatazka-mineralak eskatzen jarraituko delako. Beraien hornitze kateetan ikerketa independenteak egin beharko lituzke ere, eta ikerketa hauek pausu bakoitzaren fitxa teknikoak erakutsi behar dituzte eztainu, tantalio eta wolframioaren hornitze kateekin batera.
- **Gobernuak ekintza lagundu beharko lukete hornitze katean:** Estatu Batuek eta beste gobernuak Segurtasun Kontseiluaren 1857. erabakia bete dadin lagundu beharko lukete era suttsuan. Honek helburu zehatz batera zuzendutako zigor gehiago eduki behar du, eta ikerketa independenteak, mineralen arrastroa jatorrizko meategitik eta beste murrizte batzuk eskatzeko legegintza ere. Legegintza hau babestuta egongo beharko luke Estatu Batuetako gobernu-agentzieiek egindako kontrol eta zaintza zorrotz batez; agentzia hauen artean Estatu Batuetako Barne Segurtasunarako Saila eta beste Estatu Sailak ez zuzenak diren txostenak zelatatzeke.

2. Estrategikoak diren meategiak aurkitu eta ziurtatu

NBE-ko Aritu-taldeak dokumentatu du zelan gatazkaren parte diren talde armatuek, Kongoko armada barne, baliagaien ustiapenari eta lekuko biztanleei egiten zaien mehatxuei etekina ateratzen diotela. Minak kontrolatzen dituzte, salerosketarengatik zergak kobratzen dituzte eta salerosketan sartuta dauden zibilez abusatzen dute. Talde-armatuek eskualdeko meategi-ikuskatzaileak ikaratu edota hertsatzen dituzte eta ikuskatzaileak ez dira gai jardura hauetan agintzeko. MONUC-ren (Nazio Batuek Kongoko Errepublika Demokratikoan duten Misioa) aginduak legez

kanpoko baliagaien joan-etorriaren zaintza bere barnean hartu duen bitartean, askoz baterakoa den inbertsio internazional bat beharko da meategi ugari dituzten zonaldeen segurtasun kalkulua benetan aldatzeko.

Egoera hau aldatzeak meategi handienak fisikoki ziurtatzea dakar eta hauen kontrola talde-armatuei kentzea. Hau berehalako lehenasuna da, baina NBE-k eta beste jokalariek batzuek ez jakinarena egin dute. Orain dela gutxi Kongoko eta Ruandak burututako elkar-lana (dirudienez Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoen kontra, Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoekin harremanak maiz ez izan arren) oinarritu da Herrialdearen Babesarako Batzar Nazionalaren buruzagia kargutik kentzean, Lauren Nkunda, eta Herrialdearen Babesarako Batzar Nazionala Ipar Kivu-ko eskualdeko agintari politiko eta militarren barnean sartzea. Elkar-lan honek estatus quoarengan eragina izan du. Ekialdeko Kongoko meatze-salerosketa elkar-ulertzeak eta elkar-ulertze honek segurtasun testuinguru batean egotea funtsezko zati bat da Kinshasa eta Kigali-ren arteko su-eten iraunkor batentzako; eta komunitate internazionalak auukera bat du orain dela gutxi gertatutako gertakarietan biztanle kogoarrari mesede egiten dioten irtenbideak babesteko.

Estatregia desberdinak egin behar dira jatorri desberdinetakoak diren eta asmo desberdinak dituzten talde-armatuei aurre egiteko. Segurtasun-sektorearen erreforma modu hobereana izango litzateke garai bateko Herrialdearen Babesarako Batzar Nazionalarekin, Mai-Mai taldeekin eta osatutak ez dauden armadaren batailoiekin harremana izateko. Ez dirudi ahalegin hauek meatze-sektorea epe laburrean erabat desmilitarizatuko dutela, baina aukera gehiago dute sustatutako legezko salerosketa batetera zuzenduta dagoen status quo a epe ertainean aldatzeko. Beste alde batetik, Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoen kontrako lanek indar militar handiagoa eta ahalegin handiagoa behar dituzte Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoen nagusitasuna ahultzeko, mineral-aberastasunak eskuratzeko aukerarik ez izatea, jendea desertatu dezan adoretzeko eta zibilak errepresalietatik babesteko.

Kongoko indarrek ez dute disziplinarik eta ez dira gai zibilak babesteko edota Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoen eskualdean geratzeko, eta epe laburrean beraiek gutxi planeatu dituzten ekintzek Kongon dauden egoera ikaragarriak larriagotuko dituzte. Baina meatze-ustiategien leku estrategikoen identifikazioa orain hasi daiteke. MONUC Kongoko gobernuarekin elkar lanean aritu behar da talde armatuen kontrolpean dauden meatze-ustiategien leku estrategikoak aurkitzerako orduan. Ahalegin hauek ez dira milizia batean bakarrik kontzentratu behar, baizik eta beste ezaugarri batzuetan oinarrituz aukeratu behar dira: tamainua, igarotze-bideen hurbiltasuna eta MONUC-en edota segurtasuna mantentzeko trebatuak izan diren edota gaituak diren Kongoko indarren trebetasuna.

MONUC-ek eta militar-behaztzaile internazionalak babestutako eta zehazki osatutako Kongoko segurtasun indarrek ziurtatu behar dituzte meatze-ustiategi hauek eta salerosketa-kateekin harremana duten igarotze-bideak; igarotze-bide hauen artean aerodromo zehatzak, portuak eta muga-bidegurutzak aurkitzen dira. Ahal den neurrian, hau negoziazioaren bitartez eta bere postuak utzi eta desarme, desmobilizazio eta gizarteratze programa batean parte hartu nahi duten nagusientzako eragingarri positiboekin egin behar da. Ekimen hauek lehenagoko desmobilizazio programak kongoarrak baino ikuspegi indartsuagoa behar dute, lehenagoko desmobilizazio programek etengabeko eta bortxazko meatze-ustiapenari estaldura ematen amaitu baitzuten militarizazioa gutxitu gabe. Giza eskubideak hausten dituztenak irazteko ikerketa zehatz baten bidez eta geroago dagoen errehabilitazio prozesu garrantzitsuen bidez, talde-armatuen soldaduek segurtasun zerbitzuetan integratzeko gai izan behar dute. Indartutako MONUC batekin, horrelako indar batek beharrezkoa den berehalako segurtasun fisiko eman dezake mineralen salerosketa meategi zehatz hauetatik merkatuetaraino eta Ekialdeko Kongoko esportazio puntuetaraino erregulatzeko. Ikuspuntu hau erabateko ekimen koherente batean oinarritu behar da Kongon segurtasun-sektore orokorraren erreformari laguntza emateko.

Funtsezko meategi estrategikoak ziurtatu

Ekialdeko Kongoan pistolaz kontrolatutako ehundaka meategi daude. Baina ondorengo meategiak funtsezkoak dira talde-armatuentzako:

- **Bisie meategia, Walikale Barrutian, Ipar Kivu:** ezta inu mea gehienak ekoizten ditu Ipar Kivu-k. Kongoko armadan integratuta ez dagoen 85. batailoien eskutik (benetan Mai-Mai milizia bat) Herrialdearen Babesarako Batzar Nazionalaren nagusi baten, Manzi koronelaren, agindupeko integratutako batailio baten eskuetara pasatu zen. Ez dago argi soldadu berriek meategietan bertan fisikoki dauden, baina kontrol-postuetan aktibo daude eta meatzariek zergak ordaindu behar dizkiete^{xxxiii}.
- **Lueshe Pyrochlore meategia, Rutshuru Barrutian, Ipar Kivu:** orain Kongoko armadaren eta Herrialdearen Babesarako Batzar Nazionalaren agindupean daude. Ipar Kivu-ko eta Hego Kivu-ko meategi

industrial gutxienetariko bat da; niobio ekoizten du, tantalioarekin estuki lotuta dagoena. Lan industrialak martxan jartzeko leku egoki bat da.

- **Bisembe, Mwenga eskualdea, Hego Kivu:** Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoen Mwengako inguruan dauden meategiak modu militarrean eta ekonomikoan kontrolatzen dituzte; izan ere, Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoen mini-estatu bat ezarri dute Hego Kivu-ko eskualde honetan. Zonalde hau ziurtatzeak ahalegin garrantzitsuak eskatzen ditu Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoen kontrol militar eta administratiboarekin amaitzeko, eta plangintza handiarekin kontuan hartu behar da bakarrik, zibilak babesteko hornikuntza barne.

Meatze-ustiapenarako dauden beste zonalde garrantzitsu batzuk ondorengoak dira: urre meategia Fizin, Hego Kivu; eztainu, tantalio eta urre meategiak Ziralon, Kalehe-ko eskualdean, Hego Kivu; eta Ksugho-ko inguruetan dauden urre meategiak; Lubero eskualdean, Ipar Kivu.

3. Gobernantzaren egituren erreforma

Lekuko eta munduko enpresariez, milizia nagusiez eta politikoz konposatutako sareek dirutza egiten dute Kongoko mineral-aberastasuen bitartez, eta sare hauen kideek legezko estatu-botere baten oinarria izan beharko litzatekeen baliagaiei etekina ateratzen diote. Ekialdeko Kongoan estatu bat sortzeko ahaleginek estatuaren agintaldia luzatzeko behar diren funtsezko alderdietan arreta jarri dute: gobernuko agintariei aukeratutako bideen kontrola emanez. Hau pausu garrantzitsu bat izan arren, ahalegin hauek sostengaezinak izango dira eskualdeko eta probintzialdeko agintarientzako diru-sarrera iturririk ez badaude. Meatze-ekonomiaren kontrolaren zati bat estatuari emateak beharrezko laguntzaren oinarri eman dezake eta oso nabaria den eta laguntza internazionala garrantzitsu bat eduki dezakeen legezko mineral salerosketa bat garatzera lagunduko luke. Munduko Bakuarentzako egindako Ipar Kivu-ko kasiteritaren salerosketari buruzko ebaluazio batean, Nicholas Garret adituak kontzeptu hau ondorengo moduan izendatzen du: “Integritate Uharteak, beste eskualde batzuetan bigarren mailako ondorioak dituztenak”. Korrupzioarekin amaitzeko dauden ekimenen zorrotasuna dela kausa eta meategi-ofizial kongoarrak talde armatuen menpe daudenez, meatze sektorearen kanpoko baina denboraldi baterako internazionalizazio bat behar izango da meatze-ustiapenetatik eta salerosketatik lortutako irabazi egokiak gobernuko diru-kutxa ofizialetara itzultzen direla ziurtatzeko.

Komunitate internazionala Kongoko gobernuarekin elkar lanean gogor aritu behar da asmo politiko bat eta gaitasun bat eraikitzeko meatze-ustiapenaren eta salerosketen kontrola Ekialdeko Kongoan eduki dezaten. Ahalegin honen oinarriak Munduko Bankuaren estrategian laburtuta agertzen dira, baina ikuspegi zabalago bat eskatzen du ekialdeko eskualdeetan dagoen baliagaien gatazkaren hedadura bereziei buruz. Kongoko korrupzio endemikoa eta mineralen salerosketa kontrolatzen duten sare oso sofistikatuak eragozpen handiak dira erreformarako. Baina Kongoko gobernuak pagamendu-balantzan krisi bat izateko zorian dago eta Munduko Bakuaren, Nazioarteko Diru Funtzaren eta arazo honetan sartuta dauden gobernuen larrialdietarako funtsak behar ditu; egoera honetan, komunitate internazionalak aukera du, ez bakarrik konpromisoarengatik presioa egitea, baina meatze-ustiapenen, salerosketen eta zerga-erregimenen arautzeari dagokien erreforma frogagarriak lortzeko ere.

Ondorengo ekimen politikoen eragin iraunkor bat izango lukete gobernantzaren egituren erreformarengan:

- **Erreformarako borondate politiko bat sortzeko hizketa:** Estatu Batuek eta MONUC-ek kide internazional eta kongoarrekin lan egin behar dute Ekialdeko Kongoan burutuko den mineral-salerosketaren reformari buruzko hizketa bat barne hartzen duen prozesu bat hasteko. Horrelako prozesu batek jasotzaile talde handi bat kontuan izan beharko luke; jasotzaile hauen artean ondorengoak egongo dira, besteak beste: meatze-komunitateak, gizarte zibilaren erakundeak, merkataritza-komunitatea, eta lekuko, eskualdeko eta nazioarteko gobernuak^{xxxiv}. Tripartite Plus prozesuaren bitartez elkarriketa politikoa buru daitezen bultzatzen da, baina elkarriketa hauek prozesu zabalago eta barneratzaile baten lehenengo zatia izan behar dute bakarrik.
- **Elkarreko ekimen bati buruzko koordinazio emailea erreforma sendatzeko:** erreforma zatikatu batek eta esku-hartze ez koordinatuek lekua utzi behar diote koordinatutako nazioarteko lankidetzari batera mineralen legezko salerosketa babesteko. Salerosketa-kate zertifikatuen kontzeptua esparru onuragarri bat

ematen du era honetako ekimen batentzako, baina lekuko jendeak eta erakunde kongoarrek egindako ahaleginak lehenetsuna izan behar dute.

- **Aldi baterako Meatze-Agintaritzaren bat Ekialdeko Kongoan sortzea gobernuko fidagarritasun batekin batera:** kontuan hartuz korrupzioaren boterea meatze-ustiapenaren erreforma ahultzerako orduan, nazioarteko eta denbora mugatutako ahalegin bat beharrezkoa da gardetasun eta erantzunkizun handiago bat emateko. Agintaritzaren hau Kongoko eta nazioarteko teknokratek osatu dezakete eta lekuko meatze-agintariak ikuskatu ditzakete Ipar Kivu-n eta Hego Kivu-n. 3 eta 5 urteen arteko denboraldi batean, meatze-agintaritzaren batek ondorengo ekintzak egin ahal izango lituzke: mineral-salerosketaren arautze handiago bat eman, bildutako diru-sarrerak hobetu eta dauden gobernuko agentziekin elkar lanean aritu ekintza hauek beraiek bakarrik egiteko gai diren meatze-ikuskatzaile eta aduana-ikuskatzaileen profil bat garatzeko. Ekimen honen jatorria eta garrantzia zehatzek hizketa eta koordinazioaren bidez jarri behar dute. Aukerak oso handiak izan daitezke: Kudeaketa Ekonomikorako eta Gobernuarentzako Laguntza Programa (GEMAP ingelesez) bezalako sistema zehatz batetik mugatuagoak diren aukerataraino, adibidez, Koroako Agentzia/Aduana-erreformaren Nazioarteko Garapenerako Saila Mozambikentzat^{xxv}.
- **Lekuko koordinazioa esportazioengan inguruko herrialdeen bitartez egiten den kontrabando-sustapenak deuseztatzea:** muga-zergen tarifen artean dauden desberdintasun erraldoiak direla eta, Ruandatik meza-estatu kontainer bat esportatzeko 200\$ ordaindu behar dira zergatan, kontainer bera Kongo Errepublika Demokratikotik esportatzeko 6.500\$ ordaindu behar diren bitartean. Honek kontrabandoa sustatzen du eta, beraz, esportazio-erregimenak koordinatzea beharrezkoa da. Aintzira Handien herrialde bakoitzak interesa handia du mineralen salerosketa legeztatzea, eta Estatu Batuek eta nazioarteko komunitateak estatu hauekin lanean aritu beharko lukete esportazioa sendotzen duten zerga-erregimenak elkar sortzeko. Hau burutu daiteke Aintzira Handien Baliagai Naturalen Eskualdeko Ituna eta Protokoloaren laguntzarekin, estatuburu egoki guztiek sinatutako legeztatze-tresna.

4. Meatzarien soldatak eta aukera ekonomikoak babestu

Askotan, meatzari behartxuek eta bere familiek meategietan lan egiteagatik lortzen duten soldata eskasaren erabat menpean daude, eta gaur egun aukera ekonomiko gutxi dituzte esklabotza kontratatuta honetatik ihes egiteko. Are gehiago, meatzariek oso arriskutsu eta nekagarriak diren baldintza fisikoetara egin behar diete aurka bere lana egiterako orduan. Faktore hauek oraindik garrantzitsuagoa bilakatzen dute erreformarako ekimenak modu egoki batean kudeatzea meatzariei eta beraien familiei bizitza oraindik zailagoa ez egiteko. Gatazka-mineralen salerosketarekin amaitzeko egin behar diren ahaleginak nazioarteko laguntzarekin batera joan behar dute bizibidearentzako eta aukera ekonomikoentzako ekialdeko Kongoan. Honek ondorengo puntuak eduki behar ditu barne:

- **Legezko gune antolatzaile bat artisau-meatzarientzako sortzea:** askotan, artisau-meatzaritzaren legez kanpokoa da Kongoko Errepublika Demokratikoan, sektorea baztertu eta txirotasuna iraunarazten duena. Laguntzaileek gobernu kongoarrarekin lan egin beharko lukete Kongoko Errepublika Demokratikoko Meatze-Kodea aldatzeko eta era honetan artisau-meatzaritzaren legezkotza egiteko eta artisau-meatzariei kooperatibak eta meatzari-taldeak sortzeko aukera emateko. Honek ere legezko inbertsio handiagotza egitea utziko luke artisau-meatzaritzaren esparruari dagokionez.
- **Azpiegiturak:** Munduko Bankua eta beste herri laguntzaileek lan egin beharko lukete ekialdeko Kongoa mendealdeko Kongoko merkataritzaren bideekin eta Rift Haran Handiarekin lotuko duten bideak bereraikitzeko laguntzeko; modu honetan, beste sektore batzuek ere onura ateratu ahal izango diote salerosketari. Bermatutako eskulan bat eta soldata egoki bat duten azpiegituren proiektuek lagundu dezakete meatzariek gatazka-meategietan lan egiteari utz diezaioten eta desmobilizatutako borrokalariarentzako aukerak sor daitezkeen.
- **Inbertsio pribatua:** enprese handiek meatzarien bizi-maila handitu dezakete bananduta frogatu daitezkeen mekanismoak praktikan jartzen badira; modu honetan ziurtatu daiteke enpresek ez dituztela talde-armatuak laguntzen eta meatzetan osasun-, lan- eta segurtasun-arauak daudela ikusi daiteke. Inbertsio pribatua konponbidearen zatia izan daiteke miaketarako indarrean dauden mekanismoak baldin badaude eta arau egokiak betetzen direla ikusten bada.

- **Bizibide alternatiboak:** nazioarteko inbertsioa indartu beharko litzateke nekazaritzarako garapenarentzako ekimenetan ekialdeko Kongoan; izan ere, meatzaritzak nekazaritza baztertu du azken urteetan. Sierra Leonako meatze-zonaldean nekazaritza-inbertsioaren adibide onak aurki ditzakegu. Honek kolaborazio berritzaileak ekarri ditu hainbat sektore publiko eta pribatuen artean, adibidez, Estatu Batuetako Nazioarteko Garapenerako Agentzia, Tiffany bitxitegia eta Ingurune-Seguritasun eta Iraunkortasunerako Fundazioa. Beste alternatiba batzuk ere proposatu beharko litzakete bizibidearentzako, enpresa txikien garapenerako zuzendutako proiektuak, esate baterako. Proiektu hauek guztiak meatzariekin batera kolaborazio estua izanez diseinatu beharko litzateke, eta meatzarientzako hezkuntza-ekimenak ere bultzatu beharko litzateke.

Konklusioa

Gatazka-mineralen arazoa Kongon konplexua da, baina irtenbide batentzako bidea dago. Estrategia honen funtsezko lau zatiak (hornitze kate gardenak, meategiak ziurtatu, meategien eta salerosketaren gobernantza hobetu, eta metzarien bizibide aukerak hobetu) benetako asmo politikoa dira. Asmo hauek burutzeak koherentzia eta konpromisoa eskatzen ditu bai Kongoko gobernuaren aldetik bai nazioarteko komunitatearen aldetik. Baina ahalegin hauek bakarrik ondorioak izan ditzakete Estatu Batuetako eta munduko banako kontsumitzaileek pausu bat aurrera eman eta aldaketa eskatzen badute. Enpresen eta gobernuen ganean presio handia egiten ez bada, gertatu daitekeen gauzarik onena oso sendoa ez diren neurriak garatzea da; beharbada badirudi neurri hauek erreforma bat ekarriko dutela, baina azkenean Kongoko aberastasun naturalaren ustiapen hertsagarria jarraitzea onartuko dute. Produktu elektronikoak ekoizten dituzten enpresa garrantzitsuenei telefonoz deitzeak edota emailak idazteak eta hauei esateak ziurtatu behar dutela beraien produktuak ez dutela gatazka-mineralerik, ere lagunduko luke baldintza egokiak sortzera Kongoko Gerrarekin amaitzeko. Era berean, ziurtatu dezakezu zure ahotsa entzun dadila Gatazka-Mineralen kontrako Konpromisoa lagunduz, online aurkitu daitekeena.

Ekialdeko Kongoan dagoen korrupzioaren eta bortxakeriaren erabateko nagusitasunarekin amaitzea ez da lan erraza, eta ere ez da izango erraza kongoar herria laguntzea bere interesak azaltzen dituzten legezko erakundeak sortzerako orduan. Kontsumitzaileek eta beraiek aukeratutako ordezkariak, ordea, aukera dute Antzira Handien Eskualdean dauden gatazkaren dinamikak modu erabakitzailean aldatzeko, nazioarteko arreta giza-eskubideen hondamendi honen jokalarik ekonomikoetan arreta ipiniz. Munduko enpresa elektroniko handiei gardetasuna eta erantzunkizuna eskatzen badizkiete, kontsumitzaileek Kongoko gatazkaren logika funtsezkoki alda dezakete eta gatazka-mineralen mehatxuari amaiera ipini.

1. Eranskina: ekialdeko Kongotik datozten eztainu, tantalio, wolframio eta urrearen ehunekoak: 2008

Eztainua: ehuneko 6 eta 8-ren artean^{xxxvi}

- Ekialdeko Kongoko gutxi-gorabeherako ekoizpen: 24.592 tona ^{xxxvii}
- Munduko gutxi-gorabeherako ekoizpena 2008an: 350.000 tona^{xxxviii}

Tantalioa: ehuneko 15 eta 20-ren artean^{xxxix}

- Ekialdeko Kongoko gutxi-gorabeherako ekoizpen: 155 tona ^{xl}
- Munduko gutxi-gorabeherako ekoizpena 2008an: 815 tona^{xli}

Wolframioa: ehuneko 15 eta 20-ren artean

- Ekialdeko kongoko gutxi-gorabeherako ekoizpen: 1.300 tona^{xlii}
- Munduko gutxi-gorabeherako ekoizpena 2008an: 54.600 tona^{xliii}

Urrea: ehuneko bat baino gutxiago

- Ekialdeko kongoko gutxi-gorabeherako ekoizpen: 6,5 tona^{xliv}
- Munduko gutxi-gorabeherako ekoizpena 2008an: 2.330 tona^{xlv}

2. Eranskina: Talde-armatuen irabaziak kalkulatzeko erabilitako metodologia

Gatazka-mineralen salerosketatik talde armatuek lortzen dituzten irabaziei buruzko hizketak eta kontsultak ikertzaile, legegile eta industriak laguntzea espero dugu zifra zehatzago, gardenago eta fidagarriagoak garatzerako orduan. Dokumentu honetan aurkeztutako kalkuluak gutxi-gorabeherakoak dira eta gaiarekin lotuta dauden edozein datu pozik jasotzen ditugu.

Gatazka-mineralen salerosketatik talde armatuek lortzen dituzten irabaziei buruzko datuak gure lau iturri nagusietan oinarritzen dira. Lehendabizi, esan behar dugu salerosketa hau miaztea zaila dela, Kongoko gobernuko agentzia ofizialek mineralen kopuru eta prezioari buruzko informazio zehatza ematen ez dutelako, ikerketaren hainbat txostenek erakutsi duten bezala. Hala ere, azkenengo hiru urteetan esparru-ikerketa zehatz bat burutu da gai honi buruz; gure aburuz, ikerketa honek irabazietan ematen den parte-hartzearen gutxi-gorabeherako arrazoizko estaldura batentzako oinarria emango du. Datu hauek hiru talde-armatu nagusiak kontuan hartzen dituzte: Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak, Herriaren Defentsarako Batzar Nazionala eta Kongoko armadaren unitate erreboltariak. Talde-armatu hauek salerosketatik onurak ateratzen dituzte bi era nagusietan: meategien ehuneko bat kontrolatuz eta mineralen garraioaren ehuneko bat kontrolatuz meategietatik esportazio punturaino. Lehenik eta behin, esan behar dugu eztainu, tantalio eta wolframioarentzako Meategi-Dibisioaren 2008ko datu ofizialak erabiltzen ditugula Ipar Kivu-rako eta Sektore Pribatuaren Federazioaren datuak Hego Kivu-rako, Garrett-ek eta Mitchell-ek 2009ko apirilan aurkeztu zuten bezala. Polé Institutoak eta bestek azpimarratu duten bezala, hiru mineral hauen (eztainu, tantalio eta wolframioaren) zati gehiena ez da kontrabandoz pasatzen, baizik eta ez da informazio zehatza ematen bere kopuru eta prezioari buruz. Bigarrenik, Garrett eta Mitchell-en tasa erabiltzen dugu;

tasa honek hiru mineralen esportatutako pisu-kopuruaren 35%-az zehaztasunez informatzen ez dela azaltzen du. Hau gutxi-gorabeherako kalkulua da, Polé Institutuaren, Afrika Erdialdearentzako Ekimenaren, Nazioarteko Garapenerako Sailaren eta beste erakundeen kalkuluek kopuru hau %40 eta 135% artean kokatzen dute eta; datu ofizialen bilketa azkenengo hiru urteetan hobetu egin dela onartzen dugu. Pole Institutuak Bisie meategitik ateratako eztainu-meari buruz tokian egindako behaketetan, Kilambo Migrazio-Bulego Nagusiaren eta Garrett-en, eta Gomatik esportatutako mea-eztainu berari buruz lortutako datu baxuen artean dauden desberdintasunetan oinarritzen da %35ko tasa neurri batean. Hirugarrenik, NBE-ko Aditu-Taldeak emandako 2008ko abenduko datuak eta *Africa Confidential* aldizkariaren eta eskualdeko meategi-merkatarien txosten independenteak erabiltzen ditugu talde-armatuek kontrolatzen dituzten meategi eta transporte-bideen ehunekoak kalkulatzeko. Azkenik, Estatu Batuetako Zerbitzu Geologikoari egindako elkarrizketek eta metal-merkatariak informazio bikaina eman dute hornitze kate eta kate honen zehar egiten diren mineralen gutxi-gorabeherako prezio-finkatzeari buruz. Urrearen salerosketak miaztea zailagoa izan arren era zabalago batean kontrabandoz pasatzen delako, Polé Institutuak eta PACT GKE-k oinarri bezala erabiltzen dugun ikerketa baliagarri bat aurkeztu dute. Hainbat aldagaien ehunekoetan posible diren aldaketak daudela aitortzen dugu, horrexegatik irabaziei buruzko kalkuluen tarte bat ematen dugu: altua, ertaina eta baxua.

Enough Center for American Progress-en (Amerikar Garapenerako Zentruaren) proiektu bat da gizarteriaren kontrako krimen eta genozidioarekin amaitzeko. 2007an sortua, Enough Sudaneko, Txadeko, ekialdeko Kongoko, Ugandako iparraldeko, Somaliako eta Zimbaueko krisietan arreata jartzen du. Enough-ren estrategiarako dauden dokumentu eta saio informatiboek esparru-analisi sakona eta gomendio politikoak ematen dituzte hiru puntutan oinarritzen den helburu zehatz batekin (3 P-ak ingelesez: promote, provide and punish) krisi baterako erantzun estrategiko bat lortzeko: bake iraunkorra sustatu, babes zibila eman eta ankerkerien egileak zigortu. Enough-ek krisi hauek saihestu, arindu eta konpontzeko interesatutak dauden herritar, defendatzaile eta legegileekin lan egiten du. Enough-ri buruz gehiago jakin nahi baduzu eta proiektuan lagundu nahi baduzu, bisitatu: www.enoughproject.org.

ⁱRuanda eta Kongoren arteko talde-lanei buruzko analisiak ikusteko, ikusi “Congo’s Dangerous Crossroads”, 2000ko urtarrilaren 30; Herriaren Defentsarako Batzar Nazionala eta Kongoko gobernuaren arteko duela gutxiko adospenei buruzko informazioa edukitzeko, ikusi Enough-ren hurrengo txostena. Ruandaren askapenerako indar demokratikoak Ekialdeko Kongotik kanpo botatzeko gomendioak irakurtzeko, ikusi “Past Due: Remove the FDLR from Eastern Congo” de Rebecca Feeley eta Colin Thomas-Jensen, Enough Strategy Paper, 2008ko ekaina.

ⁱⁱDaniel Magnowski, „Tin price spike shows Congo’s growing origin role”, Reuters, 2008ko urriak 30, ikusi <http://www.reuters.com/article/latestCrisis/idUSLU661455>

ⁱⁱⁱ Talison Mineralak, “Talison to Suspend Wodgina Tantalum Operations”, Press Statement, 2008ko urriak 26.

^{iv}Nicholas Garrett, “Artisanal Cassiterite Mining and Trade in North Kivu: Implications Implications for Poverty Reduction and Security,” Communities and Small Scale Mining, 2008ko urria.

^v “Aditu Taldeak estimatzen du Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak Hego Kivu-ko artisaulan oinarritzen den meatze-ustiapen zonalde nagusi gehienak kontrolatzen dituela; meategi gehienak kasiterita, urre eta koltan meategiak dira. Ipar Kivun, Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak Lubero hiriaren mendebaldeko oihanean dauden urre meategien harrobi asko kontrolatzen ditu. Talde errebolataria ere Walikale errepidetik egiten den mineral-trafikoan sartuta dago eta mineral asko dituen Kahui Biega Parke Nazionalaren lurralde gehiena kontrolatzen du”. Ikusi, “Aditu Taldearen Azken Txostena Kongoko Errepublika Demokratikoari buruz” (“Final Report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo,” ingelesez) Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, S/2008/773, ikusi <http://www.un.org/Docs/journal/asp/ws.asp?m=s/2008/773>, orr. 20. 6

-
- ^{vi} “How Smuggling Pays for Killing,” *Africa Confidential*, 49 (23) (2008ko azaroak 14).
- ^{vii} *Africa Confidential*-ren arabera, Pole Institutoak 2008an argitaratu zuen informazio hau. “How Smuggling pays for killing,” *Africa Confidential*, 49 (23) (2008ko azaroak 14).
- ^{viii} Global Witness, “Control of mines threatens peace efforts in eastern Congo,” (2008ko iraila), ikusi http://www.globalwitness.org/media_library_detail.php/663/en/control_of_mines.
- ^{ix} Nicholas Garrett, Sylvia Sergiou, y Koen Vlassenroot, “Negotiated Peace for Extortion: The Case of Walikale Territory in eastern DR Congo,” *Journal of East African Studies* 3 (1) (2009ko martxoak).
- ^x Aloys Tegera eta Dominic Johnson, “Rules for Sale: Formal and Informal Cross-border trade in Eastern DRC” (Polé Institute, 2007ko ekaina).
- ^{xi} Nick Bates eta Hilary Sunman, “Trading for Peace: Achieving security and poverty reduction through trade in natural resources in the Great Lakes area”, (Munduko Garapenerako Saila/Munduko Garapenerako Estatu Batuetako Nazioarteko Agentzia/Comesa, 2007ko urria).
- ^{xii} Esportazioari buruzko estatistikak jakiteko, ikusi Ruandako Banku Nazionala, “Export Statistics” (2008ko abuztua), eskuragarri <http://www.bnr.rw/statistics.aspx>. Meatzeko-ekoizpena jakiteko, ikusi “MPA to Step up Rwanda Investments,” ITRI News, 2009ko otsaila, eskuragarri http://www.itri.co.uk/pooled/articles/BF_NEWSART/view.asp?Q=BF_NEWSART_310329.
- ^{xiii} Ikusi “Final Report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo,” NBeko Segurtasun Kontseiluak idatzita, orr. 22-23; ikusi, Nicholas Garrett eta Harrison Mitchell-ren “Congo Rebels Cash in on Demand for Tin,” *Financial Times*, 2008ko martxoak 5.
- ^{xiv} H.C. Starck-ek egoitza Goslarren (Alemanian) eta beste bulego Ohion, Michigan eta Massachusetts-en ditu, eta Cabot Corporation egoitza nagusia Bostonen (Massachusetts) du. Bi hauek munduko tantalioko prozesadore handienak dira. Kongoko Errepublikako Demokratikoko gobernuaren datuetan eta NBeko txostenetan ere aipatzen da metal-salerosketan aritzen diren hainbat enpresak ekialdeko Kongoko tantalio eta eztainua erosten ari direla; enpresa hauen artean, Tradernet eta Traxys (biek egoitza Belgikan dutelarik) eta Afrimex (Erresuma Batuan egoitza duelarik) daude. Dena den, Afrimex esan zion Nazioarteko Batasun Erankundeari jada 2008an ez zituela Kongotik mineralak inportatu. NBeko Segurtasun Kontseilua, “Final Report of the Group of Experts,” (“Aritu Taldearen Azken Txostena”) orr. 22-23.
- ^{xv} Consumer Electronics Association (Elektronika-kontsumitzaileen Elkarteak), “CEA Market Research” (2007ko urtarrila), eskuragarri http://www.ce.org/Research/Sales_Stats/1219.asp.
- ^{xvi} Garrett, “Artisanal Cassiterite Mining and Trade in North Kivu: Implications for Poverty Reduction and Security,” orr. 21.
- ^{xvii} Tegera eta Johnson “Rules for Sale,” orr. 37-29.
- ^{xviii} Tegera eta Johnson “Rules for Sale”; Bates eta Sunman, “Trading for Peace.”
- ^{xix} Nazio Batuen Segurtasun Batzordea, “Final Report of the Panel of Experts on the Illegal Exploitation of Natural Resources and Other Forms of Wealth of the Democratic Republic of the Congo,” S/2002/1146, 2002ko urria, orr. 28.
- ^{xx} Nazio Batuen Segurtasun Batzordea, “Report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo,” S/2006/525, 2006ko ekaina, orr. 33
- ^{xxi} Nazio Batuen Segurtasun Batzordea, “Report of the Secretary-General pursuant to paragraph 8 of resolution 1698 (2006) concerning the Democratic Republic of the Congo,” S/2007/68, 2007ko otsaila.

^{xxii} Ikusi Frank Melcher eta beste batzuek, “Fingerprinting of conflict minerals: columbite-tantalite (“coltan”) ores,” Society for Geology Applied to Mineral Deposits News, 2008ko ekaina.

^{xxiii} Nazioarteko Justizia Auzitegiak dekretatu zuen Ugandak kalteak ordaindu behar zizkiola Kongoko gobernuari bere indar armatuekin 1993 eta 2003 bitartean ez bitartekotza-printzipioak hausteagatik. Kongoko Errepublika Demokratikoko gobernuak estimatzen du kalte-ordainketa hauek 6 mila milioi estatubatuar dolarrekoa izan behar direla. Pareko kasu bat egon zen Ruandako gobernuaren kontra. Ikusi <http://www.icj.cij.org/docket/index.php?p1=3&p2=3&code=co&case=116&k=51>.

^{xxiv} Afrikako Aintzira Handien Eskualdean Segurtasun, Egonkortasun eta Garapenari buruz egindako Nazioarteko Hitzaldia Afrikako Aintzira Handien Eskualdean (ingelesez International Conference on the Great Lakes Region Pact on Security, Stability, and Development in the Great Lakes Region). 2006ko abendua. ver http://icglr.org/common/docs/docs_repository/pactsecuritystabilitydevelopment.pdf

^{xxv} Αναλιστα πολιτικο βατεκιν εγινδακο ποστα-τρθκεα, 2009κο απιριλα

^{xxvi} John Prendergast, “Can You Hear Congo Now? Cell Phones, Conflict Minerals, and the Worst Sexual Violence in the World,” Enough Strategy Paper, 2009ko apirila.

^{xxvii} Talison Mineralak

^{xxviii} Eztainuko Ikerketaren Nazioarteko Institutua, “Review of Tin Use and Recycling for 2007,” eskuragarri http://www.itri.co.uk/pooled/articles/BF_NEWSART/view.asp?Q=BF_NEWSART_308811.

^{xxix} Wolframio Industriaren Nazioarteko Elkartearen buletin informatiboa, 2008ko abendua, eskuragarri <http://www.itia.org.uk/Default.asp?Page=31>; Estatu Batuetako Zerbitzu Geologikoari egindako elkarrizketa, 2009ko martxoa.

^{xxx} GHGm, “Social and Environmental Responsibility in Metals Supply for the Electronics Industry” (2008ko ekaina), eskuragarri <http://www.eicc.info>.

^{xxxi} Herritarren Industria Elektronikoaren Koalizioa /Munduko E-Iraunkortasunaren Deklarazioa 2009ko otsaila.

^{xxxii} Chaim Even-Zobar, “Lebanon-Guinea Axis Emerges as a Major Diamond Laundering Route,” Diamond Intelligence Briefs, 2009ko martxoak 10.

^{xxxiii} Global Witness GKE-arekin egindako posta-truke

^{xxxiv} Prozesuaren deskripzio zehatzago bat irakurtzeko, ikusi Nicholas Garrett eta Harrison Mitchell, “Trading Conflict for Development: Utilising the Trade in Minerals from Eastern DR Congo for Development,” Resources Consulting Service LLC, 2009ko apirila.

^{xxxv} GEMAP-i buruz gehiago jakin izatekotan, bisitatu: <http://www.gemaliberia.org/>.

^{xxxvi} Eztainuaren ekoizpena Kongoko Errepublika Demokratikoan gutxiagotu da azken urteetan (20.000 tona inguru 2007an), baina benetako kopurua handiagoa izan daiteke Kongoko Errepublika Demokratikoko agentziek datuak zehatz-mehatz ematen ez dituztelako. Era berean, munduko eztainu ekoizpena 330.000 eta 350.000 tonen artean dabil. Horregatik, %6 eta %8 bitarteko ehuneko erabiltzen dugu akatarik ez egiteko.

^{xxxvii} Zifra hauek ofizialki jasotako zifretan oinarritzen dira eta Kongoko Errepublika Demokratikoko Gobernuko Meategi Sailak jakinarazi ditu; kopuru honi agentzia ofizialek azpideklaraturako 35% gehitu behar zaio. Meategi-Dibisioak esaten du 2008ko lehenengo 11 hilabetetan 12.502.000 kilo Ipar Kivu-n eta 4.196.000 HegoKivu-n atera zirela. 18.412.000 eta 6.180.000 zifrek hilabeta bat gehiago dute baitan eta azpideklarazio tasaren %35 ere. Azpideklarazio tasaren %35 iturri desberdinetan oinarritzen da.

INICA-k uste du baliagai naturalen esportazioen azpideklarazioa %30 eta %135 artean aurkitzen dela. Are gehiago, Bisie-n, Ipar Kivuko meategi handienan, lortutako eztaingaren azpideklarazioa %40 baino handiago izan zen 2006 eta 2007 artean. Bisie-ko edukiera ofiziala 10.600.000 kilo urterokoa da, eta Kilambo Migrazio-Bulego Nagusiko agintaritzak kongoar ofizialek 10.309.000 kilogramo ikusi zituzten Gomako Bisie-Walikale meatze-zonaldetik irten zirenean, baina Meategien Dibisioak badio kopuru hau %44 baxuagoa dela. Iruzur honen arrazoiak zehatz-mehatz azalduta agertzen dira Polé Institutuko txostenan. 2007 urterako, Garrett aipatzen du 12.754,56 tona atera zirela Ipar Kivuti-k kontuan hartuz egunero bakoitzak bi tona zeramaten sei kamioi bete-beteta eta Walikale meatze-zonaldetik Gomaraino atertzen zirenak; Garrettek ere aipatzen du 4.115 tona gehiago heltzen zirela Gomaraino Ipar Kivuko beste zonalde batzuetatik. Polé Institutuak, eta geroago Bates eta Sunman Polé-ren ikerketan oinarrituz, 16.780 tona aipatzen ditu bai Ipar Kivu-n bai Hego Kivu-n 2006 urtean. Meategi-Ministerio kongoarrak 2007an emandako esportazioaren zifra ofizialak 10.175,2 tona dira Ipar Kivu-n eta 4.731 tona Hego Kivu-n. Hala ere, zifra ofizial hauek berriro ikusi behar dira, %35 eztaing lautua dela kontuan hartuz eta %44 ez zen aduanan deklaratu, Garrett-en arabera. Honek egingo luke 17.363 guztira. Bates-ek uste du 2006 urtean aduana-ofizialek azpideklarazio gehiago egin zituztela, %67 gutxi gorabehera. Dena den, lekuan egindako elkarrizketek jakinarazten dute datu-pilaketa hobetu egin dela, eta horrexegatik azpideklarazioarako %35ko gutxi gorabeherako zifra erabiltzen dugu. Nicholas Garrett eta Harrison Mitchell, “Trading Conflict for Development (Nazioarteko Garapenerako Saila, 2009ko apirila); Nicholas Garrett, “Artisanal Cassiterite Mining and Trade in North Kivu: Implications for Poverty Reduction and Security” (CASM, 2008ko ekaina); Aloys Tegera eta Dominic Johnson, “Rules for Sale: Formal and Informal Cross-Border Trade in Eastern DRC” (Polé Institutua, 2007ko ekaina), orr. 52-54; Nick Bates eta Hilary Sunman, “Trading for Peace: Achieving Security and Poverty Reduction Through Trade in Natural Resources in the Great Lakes Area” (Nazioarteko Garapenerako Saila/Estatu Batuetako Nazioarteko Garapenerako Agentzia/Comesa, 2007ko urria); Kongoko Errepublika Demokratikoko Meategi-Ministerioentzako bildutako esportazio-datu ofizialak, 2007; Estatu Batuetako Zerbitzu Geologikoaren eztaing, Erdi-Afrikako eta tantalioko adituei egindako elkarrizketak, 2009ko otsaila, Baliagai-Aholkatzearen Zerbitzuarekin egindako elkarrizketak, 2009ko otsaila.

^{xxxviii} ITRI, “Review of Tin Use and Recycling for 2007”; Estatu Batuetako Zerbitzu Geologikoak 330.000 tona baino gutxiago aipatzen ditu. Estatu Batuetako Zerbitzu Ekologikoak eztaingari buruz egindako salgai-galdeketa (2009), eskuragarri <http://www.usgs.gov>.

^{xxxix} Kantitate hau baxuagoa zen 2000 eta 2010 urteen arteko hamarkadan, gaur egungo ekoizpenaren erdia eta heren baten artekoa. Honen arrazoia onodrengoa da: Kongoko Errepublika Demokratikoan tantali ekoizpena baxuagoa izan zen garai horretako prezio baxuen eta segurtasun-gabeziagatik. Etorkizuneko ehunekoak %10 eta %25-en artean ibiliko dira beste prezio batzuen, munduko beste toki batzuetako (Australia, adibidez) produkzioaren eta erosketa-eredu korporatiboen menpean baitaute.

^{xl} Kongoko Errepublika Demokratikoko Meategi-Ministerioaren txosten ofizialek esaten dute 56.000 kilo Ipar Kivu-n eta 295.000 kilo Hego Kivu-n atera zirela 2008ko lehenengo 11 hilabeteetan. Bi Kivuetan 517 tona atera ziren guztira azpideklarazio tasa kontuan izanda. %30-eko mea-edukierarekin, guztira 155,1 tona jaso ziren. Garrett eta Mitchell, “Trading Conflict,” orr. 31.

^{xli} Estatu Batuetako Zerbitzu Ekologikoak eztaingari buruz egindako salgai-galdeketa (2009), eskuragarri <http://www.usgs.gov>

^{xlii} Hauek gutxi gorabeherako datuak dira, benetako zifrak zertxobait altuagoak direlarik. Meategi-Dibisioaren txostenek 441.000 kilo Ipar Kivun eta 56.000 kilo Hego Kivun jaso zirela esaten dute 2008ko lehenengo 11 hilabeteetan. Bi Kivuetan 880.000 tona atera ziren guztira %35eko azpideklarazio tasa kontuan izanda. Hala ere, Meategi-Dibisioak 767.000 kilo jasotzen ditu Ipar Kivun 2007 urtean, eta gobernuko beste agentziek kopuru handiagoa jaso zituzten ikerketak egin zituzten. Honek esan nahi du benetako kopurua 1.500 tonetarin iritsi daitekela. Horrexegatik, guk 800 tonako kopurua erabiltzen dugu Ipar Kivu-rentzako. Garrett eta Mitchell, “Trading Conflict,” orr. 31.

^{xliii} Estatu Batuetako Zerbitzu Ekologikoak eztaingari buruz egindako salgai-galdeketa (2009), eskuragarri <http://www.usgs.gov>

^{xliv} Hauek gutxi gorabeherako zifrak dira eta iturri desberdinetan oinarritzen dira. PACT GKE-k, NBE-ko Aduitu-Taldearen kalkuluetan oinarrituz, kalkulatu du Ipar Kivu-k 1,5 urte tona ekoizten dituela urtero. Bates eta Sunman Polé Institutuaren ikerketetan oinarritzen den Nazioarteko Garapenerako Sailaren txostena bat kontuan hartuz, kalkulatu zuen urteko esplotazioa Hego Kivu-tik 5.000 kilogramokoa zela. Bates eta Sunman, “Trading For Peace”; Pact, “Natural Resource Trade Flows—DFID/USAID/COMESA Study” (2007ko ekaina), orr. 35-36; Tegera eta Johnson, “Rules for Sale,” orr. 75-78.

^{xlv} Estatu Batuetako Zerbitzu Ekologikoak ezta inuari buruz egindako salgai-galdeketa (2009), eskuragarri <http://www.usgs.gov>

act:onaid
Netherlands



BEWG



INFO
BIRMANIE

International **Crisis Group**
WORKING TO PREVENT
CONFLICT WORLDWIDE

Investors / **Against Genocide**



Otros firmantes: Acidi Congo (Kivu del Sur), República Democrática del Congo; Action des Chrétiens Activistes des Droits de l'Homme à Shabunda (ACADHOSHA), República Democrática del Congo; Centre National d'Appui au Développement et à la Participation Populaire (CENADEP), República Democrática del Congo; Centre for Trade Union and Human Rights (CTUHR), Filipinas; Fair Trade Centre, Suecia; Free the Slaves, Estados Unidos; Mark Taylor del FAFO Institute for Applied International Studies Oslo, Noruega; Shan Sapawa, Birmania.

Laguntzaileak:

